

2017ko otsailaren 10eko 013/17 FORU AGINDUA, zeinaren bidez Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentuko beken espedienteen izapideak baliabide elektronikoen bidez egiteko derrigortasuna ezartzen baita.

(2017ko otsailaren 20ko GAO)

OHARRA

Testu hau dibulgaziozkoa da soilik, eta ez du inolako izaera ofizialik. Araua osoa eta eguneratua jasotzen da bertan.

Irailaren 28ko 23/2010 Foru Dekretuak araututa utzi du bitarteko elektronikoen erabilera Foru Administrazioaren eremuan, betiere ekainaren 22ko 11/2007 Legeak, herritarrek zerbitzu publikoetan sarbide elektronikoa izateari buruzkoak, ezarritakoaren barruan, zeina indarrean baitago erregistro elektronikoa ezartzeari dagokionez.

2010eko irailaren 28ko 23/2010, Foru Dekretuak, baliabide elektronikoen erabileraren printzipio informatzaileak arautzen dituenak, 3. artikuluan ezartzen du, 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Arruntarenak, 14.1 artikuluan dioenarekin bat etorritik, ezen herritarrentzat borondatezkoa izango dela baliabide horiek erabiltzea Administrazioarekin. Hala ere, printzipio horrek salbuespen bat du; izan ere, aipatutako lege horrekin bat etorritik, administrazioek aukera izango dute prozedura jakin batzuetan baliabide elektronikoa erabili beharra ezartzeko administrazioarekin harremanak izateko, betiere kreditatzen bada harreman hori izan behar duten pertsona fisikoek, gaitasun ekonomiko, tekniko, lanbide ezaugarri edo beste arrazoi batengatik, behar diren baliabide elektronikoa dituztela eskura. Foru Dekretuak Gipuzkoako Foru Aldundiko departamentuen foru agindu bidez gauzatzen du aukera hori.

Salbuespen horren garapen gisa, aipatutako foru dekretuaren 33. artikulua dio aipatu obligazioa ezartzen duen foru aginduak gutxienez honako puntuak finkatu beharko dituela:

a) Zein komunikaziori aplikatzen zaien obligazioa, berariaz adierazita Administrazioaren jakinarazpenak bitarteko elektronikoz egitea edo erregistro elektronikoa erabiltzea obligazio horren barruan sartzen diren edo ez.

b) Zein bide elektronikoa erabili behar den.

c) Sinadura elektronikoko zein sistema erabili daitezkeen.

d) Zein pertsona, talde edo entitate dauden behartuta. Horrez gain, dio foru agindua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan argitaratu beharko dela.

Xede horrekin, 2016ko otsailaren 25eko Foru Agindu bidez, arautu zen baliabide elektronikoak ezinbestean erabili behar zirela Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako diru laguntzen espedienteak tramitatzeko, baldin eta diru laguntza horiek Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan badaude eta esanbidez adierazten bada dagokion diru laguntzen programaren oinarri arautzaileetan.

Une honetan, kontuan izanda Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentuko beka ikertzaile gazteei zuzentzen zaizkiela eta haiek duten gaitasun teknikoa, egokitzat jotzen da baliabide elektronikoaren erabilera ezartzea laguntza hauek tramitatzeko. Ondorioz, Foru Aldundi honek

EBAZTEN DU

1. artikulua. Aplikazio eremua.

1. Ingurumeneko eta Obra Hidraulikoetako Departamentuko beka espedienteetako tramiteak bitarteko elektronikoz egin beharko dira, betiere Gipuzkoako Foru Aldundiaren <https://www.gfaegoitza.eus> egoitza elektronikoan badaude eta esanbidez hori aurreikusten badute laguntza programaren oinarri arautzaileak.

2. Eskatzaileek bitarteko elektronikoak erabilita aurkeztu behar dituzte laguntza eskaerak, diru laguntza duten jarduketan egiaztagiriak eta entitateak nahi duen edo eskatzen zaion beste edozein dokumentu osagarri, eta, horretarako, aipatutako egoitza elektronikoan aurkezteko modua ahalbidetuta dago.

3. 2. atalean ezarritako obligazioak berekin dakar erregistro elektronikoa erabiltzea foru agindu honen 3. artikuluan ezarritako prozedurari jarraiki.

4. 2. atalean adierazi aurkezpen edo tramiteak egiteko, horretara behartuta dauden pertsonen sinadura elektronikoa aitortua edo 2014ko urriaren 28ko 574/2014 Foru Aginduan araututako pasahitza erabili beharko dute.

Ondorio horietarako, Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoan unean unean jasotzen den ziurtagiri elektronikoa aitortuen zerrendan agertzen den edozein erabili ahal izango da.

2. artikulua. Beka eskaerak aurkezteko eta espediente hauekin zerikusia duten beste tramite batzuk baliabide elektronikoaren bidez egiteko baldintza orokorrak.

1. Foru Aldundiaren <https://www.gfaegoitza.eus> egoitza elektronikoan sartuta dauden bekentzako eskaerak eta bestelako tramiteak bide elektronikoak erabiliz egiteko garaian, hala egiteko obligazioa aurreikusten duen laguntza programaren oinarri arautzaileetan ezarritakoa bete beharko da. Zehazki, beka eskaerak aurkezteko epea eta proiektuen egiaztagiriak aurkezteko, aipatu den obligazioa jasotzen duen araudi espezifikoan ezarritakoak izango dira.

2. Aipatutako bitarteko elektronikoen erabilerari dagokionez, aplikagarriak izango dira Foru Administrazioaren eremuan bitarteko elektronikoen erabilera arautzen duen irailaren 28ko 23/2010 Foru Dekretua eta foru agindu honetan ezarritakoa.

3. artikulua. Beken eskaerak eta espediente hauekin zerikusia duten beste tramite batzuk baliabide elektronikoen bidez egiteko prozedura.

1. Eskaerak eta espedienteekiko bestelako tramiteak bitarteko elektronikoz egiteko, honela egin beharko dute eskatzaileek:

1.— Foru Aldundiaren <https://www.gfaegoitza.eus> egoitzan dagoen diru laguntzen atarian sartu, eta eskuratu nahi duten laguntzaren programa hautatu.

2.— Diru laguntzen aplikazioan sartu «Internet bidezko eskaera» ataletik abiatuta, eta bertan ematen diren jarraibideak bete.

3.— Sinadura elektroniko aitortua erabiliz gero, txartel kriptografikoa txartel-irakurgailuan sartu eta PINa markatu autentikatze aldera; gauza bera aplikazioan «sinatu» aukera agertzen denean; edo pasahitza erabiliz gero, identifikazio zenbakia eta egiaztapen pasahitza sartu.

2. Prozedura horri jarraituz egiten den aurkezpenak, aurrez aurreko aurkezpenerako dagokion araudian ezarrita dauden ondorio eta epe berberak izango ditu.

3. Eskaerari erantsitako dokumentazioak, egiaztagiriek edota edozein dokumentazio osagarrik formatuen eta tamaina mugaketan araberakoa izan beharko dute, unean unean egoitza elektronikoak adierazitakoaren arabera.

4. Tramiteen transmisio elektronikoan akats formalak antzematen badira, sistemak berak horren berri emango dio pertsona eskatzaileari, errore mezuak helaraziz, behar den eran zuzendu ditzan, zuzen badaitezke.

Xedapen gehigarria.

Salbuespen gisa, dagokion laguntza programaren ardura duen zuzendari nagusiak baimena eman ahal izango du atal horretan jasotakoa ez bezalako aurkezpen bideak erabil ditzaten, eta horretarako, behar diren jarraibideak emango ditu.

Amaierako xedapena.

Foru agindu hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean jarriko da indarrean.